

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Bidezabaleko arrapala mekaniko guztiak martxan dira, osorik berriro ondoren (2. or.)
- > Algortako Geltokiko plazako komun publikoa zabalik dago (2. or.)
- > Bilboko Portuko Agintaritzak eta Abra-Getxo Kirol Portuko sozietateak protokolo bat formalizatu dute kirol-portuaren trantsizio-faserako (4. or.)

*Getxolandiak bere atea zabaltzen ditu (3. or.)



Antzerkia. Hilak 27, 20:00etan, Muxikebarrin, "Asesinato en el Orient Express". 18 euro.

A-
GENDA

Haurrentzako musika ikuskizuna. Hilak 28, 18:00etan, Muxikebarrin, "Blancanieves. El musical". 8 euro.

Olentzero eta Mari Domingi Getxorako bidean dira

Gutxiago falta da Olentzero eta Mari Domingi Getxoko kaleetatik desfilatzeko. Bi pertsonaia maitatuen inguruko jardueren antolakuntzan, udalarekin elkarlanean, parte hartzen duten elkarteek, dantza-taldeek eta kolektiboek dagoeneko argitaratu dituzte udalerriko auzoetan aurreikusitako programak.

Hainbat ekitaldi eta desfile tradizional egingo dira hilaren 20tik aurrera, ilusio eta emozio giroan, batez ere haurrentzat. Horiek Olentzerori eta Mari Domingiri bidali beharreko gutuna deskarga dezakete Udalaren webgunetik (<https://labur.eus/aephajjs>), eta desfileen ibilbideei eta ekitaldiei buruzko informazio guztia ere bertan dago.



Abenduaren 20an

NEGURI-GOBELA 18:00etan, kalejira Olentzero eta Mari Domingirekin; 19:00etan, harrera Gernika parkean. Ibilbidea: Makaletako etorbidea (Garbigunetik) – Gernika parkea.

Abenduaren 23an

ROMO 17:30ean, haurrentzako tailerrak. Olentzerori eta Mari Domingiri harrera eta gutunen bilketa Santa Eugenia.

ALGORTA 19:00etan, ume bertsolarien saioa San Nikolas plazan eta 20:00etan, Taberna Ibiltaria, plazatik.

AREETA 18:30ean, umeentzako antzerkia Xilipurdi taldearekin Eskoletako plazan.

ANDRA MARI 17:30ean, umeentzako jolasak eta eskulanak, trikitalariak...; 18:30ean, trikiritixa eta panderoa; 18:45ean, otzararen zoketa eta 19:00etan, txitxiburduntzia Malakaten.

Abenduaren 24an

ROMO 17:30ean, kalejira Olentzerorekin eta Mari Domingirekin: dantzak, abestiak, gozokiak...; 18:30ean, ongi etorria biei, txokolatea eta Olentzero erretzea, Santa Eugenia. Ibilbidearen hasiera: Santa Eugenia plaza.

ALGORTA 12:00etan, kale animazioa Musikalia Elkartearekin eta Kimetz abesbatzarekin; 16:30ean, kalejira Benantzotik 17:00etan, harrera umei Erredentorren; 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri agurra (bertsolariak, dantzariak eta Olentzeroren kondaira) eta erretzea San Nikolas plazan. Ibilbidearen hasiera: Sarrikobaso.

AREETA 10:30ean, kalejira Eskoletako plazatik Bizkaia Zubiraino eta harrera Olentzero eta Mari Domingiri; 11:00etan, erakusketak, pintura lehiaketa, bertsolariak, dantzak Berantzagirekin eta Gabonetako otzararen zoketa Eskoletako plazan; 18:00etatik aurrera, kalejira, Berantzagiren saioa eta txokolate jana plazan. Ibilbidearen hasiera: Eskoletako plaza.

ANDRA MARI 17:00etan, kalejira fanfarrea eta txistulariekin... Andra Mariko kiroldegitik; 19:15ean, Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria, gabon kantekin, dantzekin... eta Olentzero erretzea Malakaten. Ibilbidearen hasiera: Andra Mariko kiroldegia.

Las Mercedes elizan izango du geralekua (jaisteko bakarrik) Txurrukako noriara joan nahi dutenentzat

Txu Txu tren batek Bidezabal, Algorta eta Getxolandia lotuko ditu aurtengo Gabonetan

Ostiral honetatik, abenduaren 19tik aurrera, 11:30ean hasita, Txu Txu tren batek Bidezabal, Algorta eta Getxolandia lotuko ditu urtarilaren 6ra arte.

Trena doakoa izango da eta Getxolandiaren ordutegi bera izango du, hau da, 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Bidezabalgo anbulatorioetik 11:30ean eta 17:00etan aterako da trena, eta Algortako etorbideko geralekuan (59 zenbakian, batzokiaren parean) bidaiari gehiago hartu ondoren, Las Mercedes elizan geldituko da (jaisteko bakarrik) Evaristo Txurruka kaian dagoen noriara hurbiltzeko interesa duten pertsonentzat. Hor-
tik, Areetako Geltokia plazan dagoen Getxolandiara abiatuko da, eta han, alderantzizko ibilbideari ekingo dio, aipatutako ordutegian.



Haurrak, gazteak eta familiak noriara eta Gabonetako Haur Parkera (Getxolandia) joateko eta atrakzioez gozatzeko garraioa izango da, herrian zehar tren turistikoa bat izatea baino, hori beste kontzeptu bat baita. Trena ez da abenduaren 25ean eta urtarilaren 1ean martxan egongo.



ABENDUAK 18 OSTEGUNA

Ipuniaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Otso ipuinak" (euskaraz), Amaia Puinarekin. 4-7 urte. Doan. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez

Zinemabarri. 19:00h, Muxikebarrin, Eran Riklisen "Leer Lolita en Teherán" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Gabonetako kontzertua. 20:15ean, Trinitarioen elizan, Itxartu Abesbatza eta Lagun Artea Abesbatza taldeen emanaldia.

ABENDUAK 19 OSTIRALA

Getxolandia. Gabonetako Haur Parkea. Areetako Geltokiko plazan. Urtarrilaren 6ra arte. Bidaia bat 2 euro, 5 bidaia bonua 7,50 euro.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica. "Dido & Eneas" de Henry Purcell". Hizlariak: Dario Tamayo eta Moisés Maroto (musikariak). Informazio gehiago: www.allantica.org

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "52 Hertz" (euskaraz), Ados Teatroarekin. 8 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Gracia Querejetaren "La buena suerte". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Kontzertua. 18:00etan, Urepel Abesbatza (Sopelana), BBKantuz (Bilbao) eta Bilboko Club Deportivo abesbatzen emanaldia.

ABENDUAK 20 LARUNBATA

Olentzero Negurin. Ikusi azala. <https://labur.eus/x8Sfc>

Gabonetako herri azoka. 12:00etan, San Nikolas plazan, Euskal Herriko hainbat artisau, sortzaile eta elkareren produktuak salgai. Antolatzailea: Abian Kultur Elkarte.

Gabonetako V. organo zikloa. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Alberto Mielgo (saxoa) eta Pedro Guallar (organoa). Antolatzailea: Merklin organoaren lagunen elkarte.

Gabonetako kontzertua. 19:00etan, Muxikebarrin, Biotz Alai abesbatzaren emanaldia. Gonbidapenak agortuta.

ABENDUAK 21 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Katak, la pequeña ballena" (gaztelaniaz). 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Mairuaren gaztelua ispiluaren bidez" (euskaraz). 2,50 euro.

Dantza. 18:00etan, Muxikebarrin, "El Quijote", Arte Ederra Ballet Gaztearekin. 5 euro.

ABENDUAK 23 ASTEARTEA

Olentzero Algortan, Andra Marín, Romon eta Areetan. Ikusi azala. <https://labur.eus/x8Sfc>

Gabonetako kontzertua. 19:45ean, Kristo Eroslearen parrokiaren Ondarreta abesbatza (Getxo) eta Arima Kamerata Orkestraren (Bilbao) emanaldia.

ABENDUAK 24 ASTEAZKENA

Olentzero Algortan, Andra Marín, Romon eta Areetan. Ikusi azala. <https://labur.eus/x8Sfc>

ABENDUAK 26 OSTIRALA

Zirkua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Piensa en Wilbur" (gaztelaniaz). 9 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Gala Graciaren "Lo que queda de ti". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Gabonetako V. organo zikloa. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Aitor Olea (organoa). Antolatzailea: Merklin organoaren lagunen elkarte.

ABENDUAK 27 LARUNBATA

Gabonetako kontzertua. 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiaren, Ars Canticum Ensemble, abesbatza eta ganbera orkestraren emanaldia.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Asesinato en el Orient Express", Juanjo Artero, Jaime Vicedo, Helena Font, Ricardo Saiz, Juanan Lucena, Paco Pellicer, Mónica Zamora, Carmen Higuera, Candela Granel eta Estela Muñozekin. 18 euro.

Gabonetako kontzertua. 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiaren, Ars Canticum Ensemble, Abesbatza eta ganbera orkestra.

ABENDUAK 28 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Dragon Ball Super Broly" (euskaraz). 2,50 euro.

Haur ikuskizun musikala. 18:00etan, Muxikebarrin, "Blancanieves. El musical", Candileja Produccionesekin. 8 euro.

ABENDUAK 30 ASTEARTEA

Bertsu Katea. 20:00etan, Katea gunean (Algorta), tabernaz taberna, Unai Mendiburu eta Amets Arzalluz bertsolariaren saioa. Antolatzaileak: Abian Kultur Elkarte eta ALBE.

Gabonetako V. organo zikloa. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Aitor Olea (organoa). Antolatzailea: Merklin organoaren lagunen elkarte.



Bidezabaleko arrapala mekaniko guztiak martxan dira, osorik berritu ondoren

Bidezabal kaleko lau arrapala mekanikoak martxan daude jada aste honetatik, beheko bien berrikuntza integrala amaitu ondoren (1. eta 2. arrapalak). Aurreko maiatzaren erdialdean berritu eta martxan jarri ziren goiko bi arrapalak bezala

(3.a eta 4.a), bi arrapala berriak irristagaitzak dira euriari aurre egiteko, bandalismoaren aurkako eskudelen gida bat eta led argiztapena dute, koloreen udal sistema zentralizatuarekin koordinatuta hainbat arrazoi solidarioekin bat egiteko, eta

babes elektrikoa ere badute. Lau arrapalak berritzeko aurrekontua, guztira, 1.072.220 eurokoa izan da: 610.000 euro, 1. eta 2. arrapalak berritzeko (EAJ/PNV, PSE-EE eta PPre akordioaren ondorioz), eta 462.220 euro, 3. eta 4. arrapalak berritzeko.



Algortako Geltokiko plazako komun publikoa zabalik dago

Algortako Geltokiko plazako modulu autogarbigarri berria zabalik dago herritarrentzat pasa den ostegunaz geroztik, hilak 11. Hain zuzen ere, modulu bikoitza da, kanpoko pixatokitik gabea. Ekipamendu berria 07:00etatik 23:00etara egongo da zabalik, udalerrian instalatutako gainerako komun autogarbigarriak bezala. Bien bitartean, Udalak Santa Ana plazako komuna jarri du ermitaren inguruan, baina oraindik ez dago martxan, eta lanean ari dira Portu Zaharrean jartzeko, aparkalekuko gunean.

Gabon hauetan bezeroak aho zabalik uzteko prestatzen ari dira Getxoko saltokiak

Ekonomia Sustatzeko Sailak Gabonetako ekintza bat jarri du abian getxotarrek bertako merkataritzarekiko duten leialtasuna eskertzeko. *GetxOpariek* edo pertsonaia magikoek sariak banatuko dituzte merkataritza-ardatz nagusietan:

- Ostegun honetan, hilak 18: Fanfarria eta oparien banaketa Areetako merkataritza gunean (18:00-20:00h).
- Ostirala 19: Txaranga eta opari banaketa Algortan (12:00-14:00h).
- Hilak 22: Magia ikuskizuna eta opari banaketa Andra Marín (18:00-20:00h).
- Hilak 26: Trikitixa eta opa-



ri banaketa Romon (18:00-20:00h).

Gainera, kanpainan parte hartzen duten negozioek oparitxo berezi bat eskainiko dute, bezeroentzat prestatua.

Segurtasun eta zaintzarako kanpaina

Urtarrilaren 17ra arte egingo da Algorta, Areta eta Romoko merkataritza-guneetako Gabonetako segurtasun- eta zaintza-kanpaina, Udaltzaingoak martxan jarrita, Ertzaintzarekin lankidetzan.

Egun horietan, agenteek aurre zaintza areagotuko dute ibilgailuz eta oinez udalerriko denda gehienak dauden gunetan. Gabonetako dispositibo berezi honen helburua delitu-egitateak prebenitzea da, normalean ebasketa eta lapurreta txikiak. Edozein gertaera gertatzekotan poliziari ahalik eta lasterren deitzea (94 466 02 02 edo 112) eta salatzea eskatzen du poliziak.

Bestalde, urtarrilaren 6ra arte, Udalak bi orduz luzatuko du udalerriko ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutegia, sektore horren jardura ekonomikoari laguntzeko. Era berean, Udalak Romo herri-ikastetxe-ko jolastokia zabalduko du aparkaleku publiko gisa erabiltzeko, abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an. Aparkatzeko ordutegia honako hau izango da: abenduaren 24ko (asteazkena) 16:00etatik abenduaren 25eko (osteguna) 22:00ak arte. Ordutegi bera izango da abenduaren 31tik urtarrilaren 1era eta urtarrilaren 5etik 6ra.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Getxolandiak bere atek zabaltzen ditu haurrentzat

Abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra, ohi bezala, Euskal Ferialarien Elkartearen eskutik, Getxolandia Gabonetako Haur Parkea izango da Areetako Geltokia plazan, txiki-kienek Gabonetako oporrak goza ditzaten.

Aurten, honako atrakzio hauek izango dira parkean: zaldiko-maldikoa, herensugea, matxin-saltoa, puzgarri birakaria, tal-

ka-autoak eta ohe elastikoak. Gainera, ahateak arrantzatzeko postua, txurro-denda eta gozoki-saltokia ere egongo dira.

Parkea 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik (abenduaren 25ea eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da). Bidaia bateko prezioa 2 eurokoa da eta bost bidaiako bonoarena 7,50 eurokoa.

Haurrentzako tailerrak

Plazaren inguruan ere, haurrentzako parkea dela eta, hainbat tailer egingo dira Getxo Kulturak antolatuta. Horiek abenduaren 22an, 23an, 26an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 2an egingo dira, 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Aurten tailerrak hiru ardatzetan egituratu dira: Gabonetako

sorkuntza, esperimentazioa eta apainketa. Besteak beste, Gabonetako iratxoak, kandelak, musuzapiak, boilurrak, imitaziozko bitxiak, gabonetako apaingarriak, henna, aurpegiak margotzeko tailerrak, musika-tresnak, tinta magikoa, txapak, orrazkera eta xaboiaren ingurukoak izango dira. Jarduera hau doakoa da eta aurretiko izen ematerik ez da behar.

Gabonetan Muxikebarrin...dantza, antzerkia eta musika

Urtero bezala, Getxo Kulturak Gabonetako eskaintza zabaldu du, eta Muxikebarriren kasuan, antzerki, musika eta dantza ikuskizunak izango dira. Abenduaren 20an Biotz Alai abesbatzak ohiko Gabonetako kontzertua eskainiko du, arratsaldeko 19:00etan eta horretarako gonbidapenak dagoeneko agortu dira. Hurrengo egunean, abenduaren 21ean, 18:00etan, herriko Arte Ederra Ballet Gaztea taldeak *El Quijote* dantza ikuskizuna interpretatuko du, Cervantesen klasikoan oinarrituta. Hilaren 26an, 20:00etan, *Piensa en Wilbur* akrobazia eta umore ikuskizuna ikusi ahal izango da, Wilbur Cirque du Soleil ospetsuko Wilbur artistaren eskutik.

Hilaren 27an, larunbata, 20:00etan, Juanjo Artero buru duen aktore talde batek Agatha Christieren *Asesinato en el Orient Express* klasikoaren antzerki-bertsioa antzeztuko du. Agatha Christieren klasikoaren egokitzapen zaindu horretan, ezer ez da dirudiena, eta keinu bakoitzak egia bat erdizka ezkututzen du.

Hurrengo egunean, hilak 28, *Blancanieves, el musical*, Grimm anaien klasikoaren bertsio eguneratua izango da 18:00etan. Abentura horretan, gure heroiak aurre egingo dio erregina gaiztoari, aniztasuna eta benetako edertasuna defendatzeko. Ipuin klasikoaren xarma ezinbesteko mezu batekin uztartzen duen ikuskizuna da, hain zuzen ere denok garela bakarrak.



2025eko Argazki Liburu Onenaren Sari Nazionala Gonzalo Martínez Azumendirentzat

Gonzalo Martínez Azumendi argazkilaria getxotarrak 2025eko Argazki Liburu Onenaren Sari Na-

zionala jaso du, CEF-Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak emanda, *Universo Azumendi* la-

nagatik, 40 urte baino gehiagoko lanbidea eta gure udalerritik mundurako begirada forjatua biltzen dituen bidaia bisuala.



Nazioarteko bidaia-argazkilaria eta *freelance* nekazina, Azumendi bost kontinenteetatik ibili da iruditzen kontatzea merezi duten istorioen bila, eta mundua gizatasunez, errespetuz eta bidaiari izpiritu bakar eta pertsonalez erakusten jakin du.

Bere lana hedabide nagusienetan argitaratu da eta 15 urtez munduko ondarea dokumentatu du UNESCOrentzat, planetako bazter batetik bestera. Bere webgunean bere lanik pertsonalenaren aukeraketa zabaldu ikusi daiteke —planetaren benetako argazki mapa, gizakiz, umorez eta surrealismo ukituz betea—, liburua eskuratu ahal izateaz gain: www.gonzaloazumendi.com

Bilboko Portuko Agintaritzak eta Abra-Getxo Kirol Portuko sozietateak protokolo bat formalizatu dute kirol-portuaren trantsizio-faserako

Abra-Getxo Kirol Portuko Sozietateak eta Bilboko Portuko Agintaritzak lankidetzak-protokolo orokor bat formalizatu dute, 2027ko abenduaren 31 baino lehen itzuliko den kirol-portuaren emakidaren inguruko jardueren marko instituzionala ezartzeko. Akordioak adierazten du bi erakundeek konpromisoa hartu dutela portu jasangarri, parte-hartzaile eta Getxoko herritarrei irekitako eredu berri bat garatzeko bidean elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko.



trantsizio-etapa berria antolatzeke. Onartutako neurrien artean, ordainketa-baldintza berriak eta prezio berriak martxan jartzea nabarmentzen da, bai amarratzailentzat, bai lokal tekniko eta komertzialentzat. Eguneratze hori bat dator sozietate publikoek bete beharreko finantza-iraunkortasunaren printzipioekin.

Era berean, trantsizio-epe honetan, Kirol Portuko Sozietateko langile subrogatuen lanak, Bilboko Portu Agintaritzari emakida itzuli arteko trantsizio koordinatua bermatuko du.

Bestalde, Udalaren osoko bilkuren borondatearekin bat etorriz, eta trantsiziorik onena errazteko, 2026ko martxoaren 31rako sozietatearen zuzendaria kargutik kentzea erabaki da, ekitaldi ekonomikoa amaitu eta urteko kontuak onartzeko Kontseiluak bilera egin ondoren.

Lankidetzak-marko hau trantsizio-fasean egongo da indarrean, gehienez ere 2027ko abenduaren 31ra arte, eta baliabideak koordinatzeko, erantzukizunak zehazteko eta etorkizunean herriko bizitzan integratutako eta jasangarritasun helburuekin bat datorren portu baterako hurrengo urratsak planifikatzeko oinarria izango da.

Bilboko Portu Agintaritzak portu-eredu jasangarri eta parte-hartzaile berri baten diseinuan ari da lanean, metropoli-estrategiarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Horizonte 2030 Agendarekin lerrotatuta. Proiektu honetan aktiboki parte hartuko du Udalak beste erakunde batzuekin batera. Herritarrak entzuteko eta parte hartzeko aukera izango da

prozesu desberdinen bidez, Kirol Portuaren etorkizunerako ahalik eta proiekturik onena modu kolektiboan eraikitzea ahalbidetuz.

Era berean, Abra-Getxo Kirol Portuko Sozietateak urteko azken Administrazio Kontseilua egin zuen pasa den ostiralean, eta bertan hainbat erabaki garrantzitsu hartu ziren kontzesioa itzuli arteko



Oilarraren Estropadak amaiera emango dio belaren egutegiari Abran

Oilarraren Estropada tradizional, berezi, parte-hartzaile eta koloretuak amaiera emango dio larunbat honetan, hilak 20, Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkarrearen urteko egutegiari, eguraldiak horretarako aukera ematen badu. 12:00etatik aurrera, 80 ontzi eta 500 estropadalarari inguru elkartuko dira Bizkaia Zubia-aren azpian, Abrako uretako bela kirolaren irudi ikusgarri eta fotografiatuenetako bat osatuz. Proba zoragarri hau, duela lau hamarkada baino gehiagotik erreferentea, 1984an egin zen lehen aldiz. *Regata, Gurtzero* eta *J80* monotipoak klaseetako itsasontzien 'tropela', beren koloretako belak haizetan zabalduta, Sestaoko Benediktako dartsenatik irtengo dira, Zubi Esekia zeharkatzeko eta Abrako uretarantz joateko, non 10 milia inguruko ibilbidea egingo duten, 2025eko azken irabazleak erabakitzeko.

Lehenago, 11:00etatik aurrera, bela arinaren erakustaldia izango da Zubiaren inguruan, José Luis de Ugarte Eskolako estropadalariekin, eta Gaude, Gorabide eta Special Olympics elkarrearen dibertsitate funtzionala duten pertsonen ere parte hartuko dute.

Euskararen aldeko besakadak IgeriBizirekin

Larunbat honetako 12:00etatik igandeko 12:00ak arte, hilak 20 eta 21, hirugarren urtez jarraian, Fadura igerilekuak Swim Camp Getxo igeriketa taldeak bultzatutako euskararen aldeko ekimena hartuko du, Udalaren laguntzarekin, IgeriBizi proiektuaren bidez. Plana Fadura 25 metroko igerilekua euskaltzalez betetzea eta 24 orduz txandaka igeri egitea da. Oraingo honetan biltzen den dirua *Hiruka* aldizka-



Belar hockeyko Munduko Txapelketako zilarrezko hiru domina Getxora

R.C. Jolasetako Juan Prado eta Juan Vilallonga jokalaria eta Joan Fitó entrenatzailea Indiatik itzuli dira etxera zilarrezko domina bana lortuta. Indian jokatu da duela egun batzuk 21 urtez azpiko belar hockeyko Munduko Txapelketa.

Espainiako selekzioak Alemaniaren aurka galdu zuen finalean shoot out jaurtiketetan (penaltiak), 3-2.

Oriol Torrasedek zuzendutako konbinatu estatalarentzat bere historiako sailkapenik onena izan da.

riari emango zaio.

Parte hartu nahi duten enpresek, elkarrekin eta taldeek ordu bat erosi ahal izango dute 50 euroren truke, eta txandak egin ahal izango dituzte beren errotan, ordua bete arte.

Izena emateko, email bat bidali beharko da swimcampgetxo@gmail.com helbidera edo 663 956 036 (Ibon) telefonora deitu.

Kiroldegietako ordutegia Gabonetan

Gabonetako jaiak direla eta, Getxo Kirolak-eko kiroldegia itxita egongo dira bi egunez, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean.

Bestalde, abenduaren 24an eta 31n kirol instalazioak 13:00etan itxiko dira. Kirol-jarduerak 12:30ean amaituko dira, eta ordu erdi utziko da aldagelak erabiltzeko.